



Balioetan oinarritutako hezkuntzaren garrantzia

BULLYING DELAKOAK HEZKUNTZA SISTEMAREN LEHENTASUNEI BURUZKO GOGOETA EGITERA ERAMAN GAITU

La importancia de los valores

Tener colegas, amigos y compañeros y sentirse querido, valorado y aceptado por ellos es una de las mejores cosas que ocurre en la adolescencia.

Cuando te llevas bien y tienes relaciones cordiales y positivas con los otros chicos y chicas y disfrutáis juntos, es algo estupendo, aunque a veces haya roces, malos entendidos, enfados y pequeños conflictos que son lógicos, y hasta necesarios, en cualquier relación o convivencia.

Sin embargo, en determinados casos, el buen clima y el buen "rollo" se ve alterado porque algunos compañeros provocan y/o sufren lo que se llama "maltrato entre iguales" o bullying. Hablamos de bullying cuando un chico/a, o un grupo, pega, intimida,

acosa, insulta, humilla, excluye, incordia, ignora, pone en ridículo, desprestigia, rechaza, abusa sexualmente, amenaza, se burla, aísla, chantajea, tiraniza, etc, a otro chico o chica de forma repetida y durante un tiempo prolongado, y lo hace con intención de hacer daño.

A

diskideak, lagunak izatea eta horiek maite zaituztela, aintzat hartzen zaituztela eta onartzen zaituztela sentitzea nerabegaroko gertaerarik garrantziko-

netakoa da. Gauza handia da, benetan, beste kide batzuekin ongi moldatzea eta harreman adeitsuak eta positiboak izatea, elkarrekin gozatzea, nahiz eta batzuetan gorabeherak, gaizki ulertuak, haserreak eta gatazka txikiak izaten diren; logikoa da halakoak gertatzea, baita beharrezkoa ere, edozein harreman edo elkarbizitzatan. Hala ere, kasu batzuetan, giro ona eta "rollo" ona hondatu egiten da, kide batzuek "kideen arteko tratu txarra" edo bullying delakoa eragiten edo/eta jasaten dutenean.

Noiz gertatzen da bullying delako hori? Gazte batek edo talde batek beste bat jotzen, izutzen, esesten, iraintzen, umiliatzen, baztertzen, zirkatzen duenean, batek besteari ez ikusiarena egiten dionean, barre egiten dionean, izen ona galarazten dionean, sexu gehiegikeriak egiten dizkionean, mehatzatzen egiten dionean, iseka egiten dionean, xantaita egiten dionean, batek bestea tiranokeriaz tratatzen duenean, etab., hori guztia behin eta berriro, luzaroan eta min egiteko helburuarekin.

"Kideen arteko izuaz mintzo garenean, kontuan hartu behar ditugu izutzailea edo erasotzailea, biktimak eta baita ikusleak ere, hau da izu ekintza horiek ikusten, ezagutzen edo susmatzen dituzten kideak, baina ezer egiten ez dutenak", dio Ruben Belandiak, Stee-Eilas sindikatuko lan arloko osasun adituak. Belandiak 2001. urtean izan zuen bullying dela-

ko gertaeraren berri, gertaera horri buruzko ikerketa egina zuen Jose M^a Aviles Valladolideko psikologoaren eskutik, hain zuzen ere.

Gizartean bizitzen ikasi

Jose M^a Avilesekin lehen harreman hura izan ondoren, Stee sindikatua berriro elkartu zen harekin, eta irakasleentzako eta guraso elkarreentzako hitzaldi espezifiko batzuk ematera gonbidatu zuen Iruñeara. Hortik aurrera, zentroak materiala eskatzen hasi ziren, arlo horretako esku-hartzea planifikatu ahal izateko, eta Valladolideko psikologoak gaiari buruzko doktore tesia aurkeztu zuenean, Steek argitaratu egin zuen. "Chemaren esperientziaren arabera, ezin esan daiteke bullying gero eta gehiago dagoenik, kopuruari dagokionez; hori bai, gizartearen ikuspegiari ari da aldatzen, giza eskubideen aldeko kulturaren beraren bidez", dio Belandiak.

Zalantzarik gabe, bullying delakoa garrantzi handiko fenomeno da, eta guztiok kezkatzen gaitu, dituen ondorioengatik; izan ere, izu ekintzak sarri errepikatzen badira, eta luzaroan irauten badute, ondorio psikologiko eta emozional oso negatiboak izan ditzake horretan nahastuta daudenentzat. "Interes sentsazionalista gehiegi dago gai honi buruz, erruduna bilatu nahi da, kezka handia dago nork zer salatzen duen, epaitegiek zer egiten duten... ; baina informazio serioa behar da bullying gertaerari buruz, behar bezala aurreikusitu ahal izateko".

Hemendik aurrera -Rubenek berak dioenez- garrantzi handiko aldaketa bat bideratu behar da hez-

kuntzaren arloan, eta hezkuntza sistemaren lehentasunen definizioan, oro har, eta norberak bete beharreko eginkizunean, zehazki. Orain arte edukiei ematen zitzairen garrantzia, eta alde batera utzita zeuden balioen hezkuntza eta hezkuntza sistemak sustatu beharko lituzkeen zeharlerroak. Orain, arreta gehiago emango diogu gizartean bizitzeko gai eta lan arloan, bizitza zibilean eta arlo guztietan beren kideekin lankidetzan jarduteko gai izango diren pertsonak prestatzeari. Horrek, ordea, hezkuntzan lan egiten dugunoi gure jarduera profesionala berbideratzea eskatuko digu, ikasleekiko harreman hurbilagoa bilatzea eskatuko digu, bullying egotzarrik sortuz gero errazagoa izan dakien ikastetxeko heldu batengana jotzea eta zer gertatzen zaien kontatzea eta, bestalde, norberak bere lanean balioetan oinarritutako hezkuntzari eman beharko geniokeen garrantzia areagotzera eramango gaitu.

Kontuan hartu beharreko jarraibide batzuk

- Kide, lagun eta adiskideekin harreman ona izatearen garrantziaz jabetzea.
- Kideen artean tratatu txarrak edo gehiegikeriak gertatzeko arriskua duten egoerak ezagutzen, saihesten eta kontrolatzen ikastea.
- Gehiegikeria fisiko, psikologiko, sozial edo sexualeko egoeren berri eman eta agerian utzi behar direla jabetzea, bai norberak jasandakoei dagokienez, bai beste kide batzuetaz ikusi edo jakiten direnei dagokienez.
- Biolentziaren eta bullying delakoaren kontrako kultura batean murgiltzea. ♣

Claves de comportamiento

- Que seas consciente de la importancia de tener buenas relaciones con tus colegas, amigos y compañeros/as.
- Que aprendas a reconocer, a evitar y controlar las situaciones de riesgo o de maltrato y/o abuso por parte de tus iguales.
- Que te convenzas de que

tienes que informar y dar a conocer las situaciones de abuso físico, psicológico, social y/o sexual que te sucedan y las que observes o sepas de tus compañeros/as.

- Que te implique directamente en una cultura anti-violencia y anti-bullying.

